



Zamakolako errota

Ugaranako plazaatik irteango gara (1). Udaletxearen alboetik, errepidea gurutatuko dugu eta bi etxeren artean sartuko gara kale batetik. Kale honek zerrategiaren alboetik igarotzera behartuko gaitu. Gure eskuinetara dagoen zubia gurutatatu egingo dugu. Horrela, gorantz doan galtzadatik jarraituko dugu, eta ez gara bertatik irteango, harik eta San Roke baselizarara iritsi arte (2) (0,8 Km) (10').

Baselizan, Olazabal auzoa zeharkatzen duen errepidea hartuko dugu. Auzoaren amateran, 4. zenbakitaren aurrean, ezkerreko mendi-bidea hartu eta baserri baten alboetik igaroko gara. Ez gara mendibide nagusi horretatik irteango, harik eta gurutatatu beharreko hesi batera iritsi arte. Bertatik aurrez aurre izango dugu Ilunbe baserria (3) (2 Km) (30').

Hesiaren ondoan, mendi-bide bat dego ezkerretara. Mendi-bide hori hartu eta Ilunbe haizta eskuinetara utziko dugu. Mendi-bide honetatik irten gabe, Lamindaoko Santa Maria Madalena Elizara iritsiko gara (4) (3,3 Km) (50').

Errepidean, PR-BI 3 ibilbideari lotuko gaitzaizkio. Lehendabizi, ezkerretara joko dugu, eta gero, eskuinetara dagoen lehen mendi-bidea hartuko dugu. Horrela, hilerriaren eta Goriñ zein Petralanda baserrien alboetik igaroko gara. Urrikoaxarantz igoko gara. Menditska hau beti egongo da gure ezkerretara, harik eta mendiskaren gainaldeko errepidera iritsi arte. Errepide honek Urrikoaxta eta Altungana lotzen dituztu Pagobietara izeneko lekua. Bertan, ezkerretatik, PR-BI 42 ibilbideari ere lotuko gaitzaizkio. Bertatik eta eskuinetatik, mendi-bidetik irten gabe, San Blas baselizarara iritsiko gara (5) (6,5 Km) (Ordu 1 35').

Baseliza igarotakoan, eskuinetatik, PR-BI 3 ibilbidea Zeanurirantz jaisten da, baselizatik 30 m. ra hain zuzen ere. Ezkerreko harritziko horma amaitzen denean, pinudian aletgia, Makazurantz abiatzen den mendi-bidetik (PR-BI 42) irteango gara. Ezkerretara dagoen mendi-bidetik jaitisiko gara, eta bertatik hurrengo helmuga ikusiko dugu. Sakaneraino sigi-sagan doan mendi-bidetik jaitisi ondoren, joko egingo gara errepidera itreteko. Elgabide baserriaren alboetik hain zuzen ere (6) (8 Km) (2 ordu).

Errepidea zeharkatuko dugu, baserriaren aurretik itreten den mendi-bidea hartzeko. Mendi-bide honek harritziko mendi-bide batera eramango gaitu, eta bertatik eskuinetara jaitisiko gara. Urzabaleta baserria iristeko 100 m. falta diranean, mendi-bide hau utzi eta ezkerretara dagoen belarrezko mendi-bidea hartuko dugu. Hartara, berritio lotuko gaitzaizkio PR-BI 42 ibilbideari (7) (9Km) (2 ordu 15').

Mendi-bide honek Indusi ibaiarekiko paralelo eramango gaitu Kor-taberria baserriaraino. Bertan labea dugu. Mendi-bidea hartxintzarrezkoa da handik aurrera. Mendi-bide honetatik jarraituko dugunez, zentral elektrikoaren alboetik igaroko gara. Antzinako errota hidrauliko baten alboan dagoen zubia zeharkatuko dugu Landaxuelan, eta aurrerago, beste bat Zamakolan. Horrela, Baltzola haiztutara sartzeko zubira iritsiko gara lehenbizi, eta gero, San Frantzisko Olabarriakoa baselizarara, zementutako mendi-bidetik. Bertan hasiko dira PR-BI 41 eta 42 ibilbideak (8) (12 Km) (3 ordu).

Baselizan, ezkerretara joko dugu errepidera itreteko. Errepidera iristekoan, eskuinetik jaitisiko gara Bentatxuriko baserriaraino. Bertan, azken baserria igarotakoan, errepidetik irten eta galtzadada batetik jaitisiko gara. Eskuinetara, errepidearekiko paralelo, Ubo eta Atramin baserriak daude. Azken honetan, mendi-bidea zertxobait itxiko da landaretza dela-eta, baina norabide beretik jarraituko dugu. Aurrerago, mendi-bide bat zeharkatuko dugu, baina ez dugu jarraunlik egingo, eta asfaltatutako mendi-bide batera iritsiko gara (9) (14,5 Km) (3 ordu 30'). Eskuinetara jotzen badugu, Bengoetxe auzora helduko gara.

Asfaltotik jarraituko dugu norabide beretik, harik eta Arratiako egoitzara iritsi arte. Bertan eskuinetara utziko dugu Ibarra auzoa. Aurrez aurre dagoen errepide nagusira igoko gara. Bertatik, eskuinetik joango gara Ugaranako plazara. Ibilbidearen amaiera izango da (10) (15,5 Km) (3 ordu 45').



Petralanda baserria eta Urrikoaxta

